

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Rafael Osoro Alberdi

*Bergara,
Gipuzkoa
(1932)*

Aurkibidea



Biografia



Osintxuko *Ontzola* (Oronsola) baserrian jaio zen 1932. urteko urriaren 24an. Ama ere baserrian bertan jaioa zen; aita, berriz, Elgoibarkoa zen. Hamaika senidetan bosgarrena zen Rafael. Bederatzi urterekin hasi eta hamabi urte bete bitartean Osintxuko eskolan egin zituen oinarrizko ikasketak. Pare bat urtez morroi egon ostean, Soraluzeko "Eugenio Argarate" torlojugintzako fabrikari hasi zen lanean. Hamalau urte zituen orduan. Soldadutza amaitu zuenean sartu zen Eibarko AYRA DUREX lantegian. Autoentzako ordezkari piezak eta "Destroyer" karabina ekoizten zituzten garai hartan. Erretiroa hartzeko garaia iritsi bitartean jardun zuen Rafaelek Ayra Durex-en.

Zintak

BER-337

- **Proiektua:** Eibarko ondare industrialak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aparicio Azpilicueta, Mikel - Gaston Balerdi, Izaskun
- **Data:** 2018-04-06
- **Iraupena:** 92 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Oinarrizko ikasketak eta doktrina

- **Erref:** BER-337/003
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:03:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Gurasoek ez zuten etxetik kanpora lanik egiten; baserritik bizi zirela kontatzen du. Gutxi joan zen eskolara, 8-9 urterekin hasi eta 12 urtera bitartean baino

ez. Eskolak gazteleraz izaten zirenez, zailtasunak izaten zituela gogoratzen du. Osintxuko elizan doktrina ikasten zuten; euskaraz.

2. Ikasketak amaituta morroi joan zen

- **Erref:** BER-337/004
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:03:47. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Eskolak amaitu eta 14 urtera bitartean morroi egon zen etxetik gertu zegoen baserri batean. Ortuko lanak egin eta bestelako enkarguekin laguntzen zuela kontatzen du. Anai zaharrena, gaztelera ikas zezan batik bat, Gasteizera morroi bidali zuten. Arrebek Bergarako kotoi-fabrian jardun zuten.

3. 14 urterekin hasi zen torlojugintzan

- **Erref:** BER-337/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>14 urterekin hasi zen Soraluzeko "Eugenio Argarate" lantegian. Aitaren ezagun baten bitartez lana nola lortu zuen kontatzen du. Aparteko prestakuntzarik ez omen zen behar torlojugintzako fabrika hartan lan egiteko. Antzera ordaintzen zieten langile guztiei; gutxi, Rafaelen iritziz.</p>

4. Fabrikara bizikletaz

- **Erref:** BER-337/006
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:08:00. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Bizikleta-fabrikak

Laburpena:

Baserritik Osintxura oinez joaten zen eta handik Soraluzen zegoen lantegiraino, bizikletaz. Bizikletan ibiltzen nola ikasi zuen kontatzen du. Lehenengo bizikleta tailerreko ugazabak erosi zion "Bicicletas Gallastegui" Soraluzeko bizikleta-fabrian. Hilabeteko soldatatik hamar duro kendu zizkieten bizikleta hark balio zituen 800 pezetak ordaindu zituenera arte.

5. Hiru hilabeteko soldata "Gallastegi" bizikleta bat erosteko

- **Erref:** BER-337/007
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:10:44. **Bukatu:** 00:12:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Soraluzeko torlojugintzako fabrikako lan-baldintzei buruz dihardu. Lantegian bertan berotu eta jaten zuen etxetik eramandako bazkaria. Astelehenetik larunbatera, 9 orduz egiten zuten lan. 300 pezeta inguru irabazten zituen hilabetea. Lanera joateko erosi zuen lehenengo bizikletarengatik 800 pezeta ordaindu behar izan zituela dauka gogoan. 16 hilabetez, soldatetik 50 pezeta kenduz ordaindu zuen bizikleta hura.

6. Gurasoei ematen zien irabazitako soldata

- **Erref:** BER-337/008
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:12:44. **Bukatu:** 00:13:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

Ezkondutza bitartean, irabazten zuen soldata etxean osorik entregatu zuela kontatzen du. Anai-arreba guztiek egiten zuten gauza bera. Ezkondutza artean eskupekoa ematen zioten gurasoek.

7. Ayra Durex lantegian lana nola lortu zuen

- **Erref:** BER-337/009
- **Iraupena:** 0:05:52. **Hasi:** 00:13:17. **Bukatu:** 00:19:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Soldadutza egiteko utzi zuen Soraluzeko tailerreko lana. Soldadutza amaituta etxera itzuli zenean, baserrian lan askorik ez eta lan bila hasi zen. Eibarrera bizikletaz joan zela dio eta "Bar Donosti" tabernan bazkaldu ostean pare-parean zegoen Ayra Durex lantegira ere lan eske joatea erabaki zuela kontatzen du. Froga bat pasa ostean, bertan hartu zuten.

8. Ayra Durex lantegiko ugazabak

- **Erref:** BER-337/011
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:19:16. **Bukatu:** 00:23:10

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria

Laburpena:

Antonio Gaztañaga, Isidoro eta Periko Trokaola eta Jose Ibarzabal ziren Ayra-Durex lantegiko ugazabak. Isidoro Trokaola Lambretta lantegira joan zela kontatzen du. Periko Trokaolak, nahiz eta ugazaba izan, tailer mekanikoan jarduten zuela kontatzen du. Inork ezin zezakeen ukitu "el torno de Periko" bezala ezagutzen zuten makina hura.

9. 1955. urteko "Orbea" bizikletak 1500 pezeta balio zuen

- **Erref:** BER-337/013
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:25:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Orbea markakoa izan zen bere bigarren bizikleta. 1.500 pezeta ordaindu zituen Elbarko Ibarkurutze kalean zegoen "Salaberria" bizikleta dendan. Ayra-Durex lantegian astean kobratzeko ohitura zegoela dio; larunbatero 200 pezeta kobratzen zituen eta hilabete amaieran likidazioa jasotzen zuten. Hilero 1200 pezeta inguru jasotzen zituela dauka gogoan. Bizikleta, irrati, ordulari eta antzerakoak oso garestiak izaten ziren sasoi hartan.

10. Palierrak eta karabinak ekoizten ziren hasieran

- **Erref:** BER-337/016
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:29:24. **Bukatu:** 00:32:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Automobilentzako piezak ekoizten zituzten, palierrak batik bat. Hala ere, hasierako urteetan karabinak ere egiten zituztela aipatzen du. Irudiei begira, hainbat pieza desberdin izendatu eta produkzioa eta materialei buruzko azalpenak ematen ditu.

11. Sei palier orduko

- **Erref:** BER-337/018
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:35:29. **Bukatu:** 00:36:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Orduko sei palierren burua egiten zuen; 50 inguru egunean. Berak bakarrik jarduten zuen prozedura hura egiten. Makina desberdin asko maneiatzea tokatu zaiola kontatzen du.

12. Kalitate-kontrolerako sailean eman zituen azken urteak

- **Erref:** BER-337/019
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:36:53. **Bukatu:** 00:38:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debarrenen lantegiak

Laburpena:

Lantegia Zumaiara aldatu zutenean, bertara joateari uko egiten zion Rafaelak behin eta berriz. Makina guztiak lekualdatu zituztenean, kalitate-kontrola zaintzen jardun behar izan zuen Eibarko lantegian. Hari buruzko azalpenak ematen ditu.

13. Emakumezkoa zen kalitate-kontrolan gehiengoa

- **Erref:** BER-337/020
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:38:28. **Bukatu:** 00:39:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Kalitate-kontrolan emakumezkoek jarduten zutela kontatzen du. Sasoi batean emakume ugari zegoen fabrika baina, apurka desagertzen joan zirela dio. Gutxiago kobratzen zutela dauka gogoan.

14. Produktibitate-sariak

- **Erref:** BER-337/022
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:40:21. **Bukatu:** 00:41:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Kopuru jakin batera iristeagatik 1500 pezeta inguruko saria jasotzen zuten eguneko. Alderantziz, iristen ez baziren 500 pezeta gutxiago ordaintzen zizkieten. Denborarik galdu gabe lan egitea komeni zitzaizela argudiatzen du.

15. Gaizki irtetzen ziren piezak erre kara botatzen omen ziren

- **Erref:** BER-337/025
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:42:37. **Bukatu:** 00:44:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Gaizki irteten ziren piezak erre kara botatzen ote zituzten galdetzen dio elkarriketatzailleak. Nahiz eta berak ezin dezakeen ziurtatu, gaizki egindako akatsak ezkutatu aldera egingo zutela iruditzen zaio.

16. Tailerrean bertan zegoen egoitza kanpotarrentzat

- **Erref:** BER-337/026
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:44:26. **Bukatu:** 00:46:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak

Laburpena:

Kanpotik etorritako (Burgos, Santander, etab.) langileek tailerrean bertan egiten zituzten jatorduak. Lotarako aukera ere ematen zitzairen eta baita lanerako arropak garbitu eta konpontzekoa ere. Etxe batean apopilo egotea baino askoz merkeago irteten zitzaizela kontatzen du; gutxi gora behera, erdia ordaindu behar izaten zuten lantegiko egoitzan.

17. Jende pila etorri zen Eibarrera lanera

- **Erref:** BER-337/027
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:46:14. **Bukatu:** 00:48:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak

Laburpena:

60. hamarkada inguruan jende ugari etorri zen Eibarrera lan bila. Txaboletan bizi zenik ere bazegoela dio Rafaelak. Etxe askotan bi familia bizi ziren; apopiloak hartzen zituzten bestela. Orokorrean herriak ondo hartzen zituen kanpotarrak.

18. Ayra Durex-en "Master" motorrak

- **Erref:** BER-337/028

- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:48:27. **Bukatu:** 00:49:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Automobilgintzarako piezak eta karabinak egiteaz gainera, motorrak ekoizteko saiakera ugari egin zituztela dio Rafaelak. "Master" zen motor haien izen komertziala baina ez zuten aurrera egitea lortu. Motorrak ekoizteari utzi ziotenean hasi ziren automobilentzako transmisioak egiten.

19. Lanerako arropak norberak erosten zituen

- **Erref:** BER-337/035
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:57:26. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Nahiz eta gaur egun lanerako arropak lantegian bertan eman, hasiera batean norberak erosi behar izaten zituela kontatzen du. Mahoizko buzoak erabili ohi zituzten.

20. Non gehiago irabazi, hara joaten ziren gazteak lanera

- **Erref:** BER-337/037
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:59:04. **Bukatu:** 01:00:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Gazteak ziren behargin gehienak. 60. hamarkada inguruan, langileen artean mugimendu handia egoten zela kontatzen du; lan aukera zabala zegoen eta, nork gehiago ordaindu, hara aldatzea oso ohikoa zela dio. Lan eskaintzak egunkarian argitaratzen ziren.

21. "Destroyer" karabinak ekoizten ziren Ayra Durex-en

- **Erref:** BER-337/041
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:01:39. **Bukatu:** 01:03:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Denboraldi batez "Destroyer" karabinak ekoitzi ziren Ayra Durex-en. Jose Ibarzabalek berak, lantegiko ugazabetako batek, konprobatzen zituen ekoitzitako eskopeta guztiak. Frogak egiten zebilela, behargin bati tiro egin ziola kontatzen du.

22. Eraikinari buruzko azalpenak

- **Erref:** BER-337/044
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 01:10:16. **Bukatu:** 01:11:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>Eraikinaren planoaren aurrean azalpenak ematen dihardu. Hasiera batean gaur egun ezagutzen dugun eraikinaren erdia baino ez zegoen. Hiltegiko animalia-larruak sikatzen egoten ziren han aldameneko txabola batean. Erreka ere bistan zegoen orduan. Parean, "Bar Donosti" zegoela dauka gogoan.</p>

23. Lantegiko sail desberdinak

- **Erref:** BER-337/046
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 01:12:25. **Bukatu:** 01:14:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Ayra Durex-ek zituen sail desberdinak eraikinaren planoan kokatzen ditu: materialaren sarrera, biltegia, tornuak, fresatzeko makinak, artezteko makinak, etab. 50. hamarkadan, 60-70 langile eta 20 tornu inguru zeudela dio. Langileen sarrera-irteera orduak markatzen Gonzalo zeritzon gizon txiki bat egoten zen atezaindegian

24. Langile egoitzari buruzko argibideak

- **Erref:** BER-337/048
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:15:15. **Bukatu:** 01:17:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Langileentzako egoitza planoan kokatzen du. Bi etxebizitza ere ba omen

zeuden; Juanito Sola, lantegiko arduraduna, bizi zen bertan. Tailerrean "Ilave inglesa" deitzen ziotela kontatzen du.

25. Zumaiara lekualdaketa

- **Erref:** BER-337/050
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 01:19:42. **Bukatu:** 01:23:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Ibilgailu-industria
- Ekonomia eta industria » Langileentzat zerbitzuak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Bestelako kontuak » Irudiak grabatzen

Laburpena:

Makina mota bakoitzaren kokapena tailerrean. 70. hamarkada amaieran lantegia Zumaiara lekualdatu zen. Sasoi hartan itxi zen egoitza ere, bertan geratzen ziren 4-5 langileak etxe partikularretara joan ziren bizitzera. Zumaiara joatearen ordainetan langile bakoitzari onuraren bat eman zitzaion. Autobusez joaten ziren Zumaiara eta bertan bazkaltzen zutela kontatzen du.

26. Langile mugimenduak

- **Erref:** BER-337/051
- **Iraupena:** 0:04:38. **Hasi:** 01:23:47. **Bukatu:** 01:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Greba batzuk ezagutu izan ditu. Arrazoiak ekonomikoa izaten zen normalean. Sindikatu desberdinak eta ordezkari ugari zegoela dauka gogoan; Jose Mari Palacios izan zen urteetan langileen ordezkaria. 50. hamarkadan, hasiberria zela, norbera joan behar izaten zen soldata igoera eskatzera. Orduko anekdota dakar gogora.

27. 1963. urteko uholdea

- **Erref:** BER-337/052
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:28:25. **Bukatu:** 01:29:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

1963. urteko abuztuko uholdeak sortutako kalteei buruz dihardu. Abuztuaren 15ean oporrak hartzerik ez zuten izan urte hartan.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com